AZALPENAK

Bermeotarrak

LAUAXETA

Oneik dira mutillak, oneik. Eztago ludijan euren aurka agitekorik. Ez gosiak eta ez jauntxuben purrustadak, eztabez atzeratuten. Itxasua da euren ogibidia, ta arima-bako batzuk kendu gura ixan dautsoe bide orixe be, Gabon egunetan zer janik euki eztagijentzat.

Gosez ostera koldartu ete dira bermeotarrok? Ez bein. Gogor egin dabe tostartekoen azkatasunen-zain. Lenago jauntxu ziranak, orain be ixan nai dabe, baña arrantzaliak eztagoz lotan, eurei zer ondo yatorkoen ikasi dabe. Gabonetan zer janik ez etxietan, umiai ogirik emoteko be ez. Baña emakumiak ziran gorenguak, euren semiai Euzkadi'ren ixan goragarrija aitatuten eutsabenak. Arein bijotz barrubetatik, iñork eztau kenduko Aberrijaren maitasun berua.

Eta ogija kendu dautsoenak, pozik egongo dira. Ainbeste diru galdu eragin eta pozik egongo dira. Elexara be juango dira... Olakuak elexatik kanpora jaurti biar leukez. Errukirik eztaukon gixona, ezta katolikuba, ez erdi be. Orreik oba dira basamortuban egoteko.

Baña makurtu dabez bermeotarren burubak? ¡Ez orixe! eta euren didarra eldu yaku geure bijotzetaragiño ta arin juan gara geure laguntzagaz. Euzkadi gustijak sentidu dau arein abotsa ta egun bijan zelako diru pillua batu dogu.

Gabon egunean geure etxietan poza eztogu gura ixan bakarrik, anayak gosez dagozanean. Arei be geure ogi zatija emon dautsoegu. Anai onai sarri laguntza eskatu ixan dautsoegu, ta eurek gosez egon diranean, emakumiak buru dirala, juan gayakoez.

An ziran Bilbao'ko emakumerik dotorienak, arrantzalien umetxubai mosuka. Otzaren bildur barik juan ziran eta pozarren egozan. Gabonetako janarija eukiko ebelako.

Millak eta millak laurlekuak batu doguz lipar batean. Non olakorik ikusten, euzkotarren artian baño? Emen benetako ziñismena daguan toki onetan ori egiten da. Abertzaliak lakarreri lagunduten, euren sakelak zabaldu dabez. Lan-bako asko dira uri andijetan, eta orrei be emon yakoe al ixan dana.

Abertzaletasunak danentzako ateraten dau, eztagon tokitik be. Geure Goi-maitasunak eragiten dausku ori. Bitartian zer egin dabe ezkertar barrabasak? Eurek ixan dira ogi barik ainbeste jente itxi dabezenak, eta gero gosez ilten itxi dabez.

Eztira gomutan txiruakaz. Lan-bako asko ei-da, baña nork egin dau ezertxu orrein aldez? Kabernikola garean oneik. Eta geure anayentzat asko batu dogulako, kanpokuai be emon yakoe. Danentzako ogija daukogu. Zorijoneko abertzaletasuna, burutik eragiten dausku.

Bermeotarrai etzakoez aiztuko aurtengo Gabonak. Euren bijotzetan iraungo dau oroi onek, eta ameak aurrai esango dautsoe abertzaletasunaren alatza edo milagrua. Jaun-Goikuaren aurka egiten dbenok, orain ikusten dira zer gura daben. Txiruai emoteko eztaukoe ezer, eurentzat baño. Eredu andijak emon dauskubez bermeotarrak, eta aurrera be emongo dauskubez. Euzkadi'ko erri txukun ori geure kutuna dalako. Ango yentiak eztira edonor, zintzuak baño. Aurpegi baltzetan eta begi sakonetan ikusten genduban arein eskar ona. Gixonezkuak eta andrazkuak, gustijak pozez eta umetxubak geuri praketatik tiraka. Bermeon gauza asko ikasi dogu.

Egunekua

GABON-JAYAK BE AMAITU DIRA

Bai irakurle, Gabon-Jayak be amaitu. Eta geu be egunen batea amaitu egingo gara, udi onetan gauza gustijak dauke euren amaya-ta.

Amaituta be baña ondo amaitu-ezkero gaitz erdi ixaten da. N.k neuk Goikua'ri eskerrak ondo amaitu dodaz, eta pozik nago.

Etxekandriak aparitxu poñta gertau be-ta, egunoko gogorik onenagaz jan geban. Zer jana be Goikua'ri eskerrak ixan geban. Urkitza-jauregiko Don Errupin'ari Zumeltza-basetxeko Jon Andon'ak-eta euruaten eutsezalako ollar-iskindurik-eta ez geban ixan, ezta Bakaldunak bere bakaltaldiian España-ziar eizan ibillita eiztaratu oi ebazan "faisanik"-eta be, baña gaimel-aza gozua ta salda, kutsutako makallu goserik ez geban ixan guk e-ta, zozketan ezer urten eztautsen txiro baten etxian egiteko naiko aparirik da.

卐 卐 卐

Apal-ostian abestuteko gogua be ixan geban, ta bai abesti politak abestu be.

"Daigun da daigun kantau ta dantzan".. birritako aldiz abestu biar ixan zan, eta entzunen-entzunagaz azkenerako txikijenak be ija ikasi ixan euskun. Antxa dagonez guk aitagandik ikasi geban abesti au. gure umiak be gugandik ikasiko dabe urrian. eta abesti begiko onek urrengor.k-urrengo gixaldijak-gixaldi iraungo dabenekua dot.

Gure umiak gugandik et: guntzarik-eta eztabe ixango, abestijak-eta baña ugari ixango dabez, bertsolari-usañekuen umiak, antzekuak urten oi dabe, ba, geyenetan.

卐 卐 卐

Gabon-Gabean Ollar-Jaupara juatia be aintziñetako oituria da, baña gu bape ezkintzazan juan; ez jaupea atsegin ixaten etxakulako, ollar-gangarren aten "kukurruku,,'rik ez entzutiarren baño. Olako gaubetan, ba, belu-ollar gangar asko ibilli daruaz, goxaldia baño lentxubago "kukurruka" asten diran ganora bako asko, eta gure lenauko zarrak esaten ebenez, gabeko amabijak aurretik "kukurruku" egitia, ikur txarra be txarra ixaten ei-da.

卐 卐 卐

Urtian batekuak eztabela kalterik egiten-eta, urte osuan ketauten eztogunarren be, Gabon-Gabian etxian bakerik ixango ba-da, txokortxu bat edo beste ketau egin biar ixaten dot, erdiko elestun da gustikua ketatu be, gure andreak ke-orri salokijan saltzen dan txokorrik onenetarikua, Gabon-Gabaz ketauteko gordeta eukiten daust, ba, beti.

卐 卐 卐

Eta txokor au ketau barik oeratuterik ezta ixaten gurian, emaztiari niganatutiagaz aiztuko ba'litzakijo be, an ixaten d.ra, ba, gertu umiak gomutau-erazoteko.

Txokorra ixetuteko barriz, txingar billa ibillijenik-eta eztot ixaten, gure umiak, ba, beste gauza batzubetarako muker egongo ba-yataz be, txingar gorija txokor-mosu- tuteko gertu be gertu ixaten yataz-eta.

卐 卐 卐

Gure ume barraban-barrabanak alakuak, aitaitak be zur-zillueatik keya ataraten dabela-ta, neuk be alantxerik egin biar dodala-ta, ¡bayetz bai bayetz!, baketan be eztaustie itxi gura ixaten; eta nik gixagaxo aund jonek, zelan ataraten dan jakin ezta be, umiak pozik ikustiagaitik keyari barrurantz eraiten asten naz, zur-zilluetako keyaren lekuban negar-anpuluak begijetaratu umiak barreka iminteko.

卐 卐 卐

Nik eztakit alako elestundun txokortzarra ezpanetan dodala zelako yaza ixaten dodan, baña gurian emaztiagandik asita ume ta enpərauko etxekuai istandak barre eraiten dautsetazana bai orraiti.

卐 卐 卐

Emaztiak, "txokorrari eskubagaz oratuten be eztakixu, ba-ta" esan, eta barre. Mutil nausitxubak be, barre. Erdiko neskatuak be, barre. Negar egiten año ezk jala-ta nenguan txikijenak be, barre, ¡danak barre! ¡Eta zegaitik ez, ba! Neuk be azkenerako eñalako barriak egiten dodaz.

卐 卐 卐

Bai irakurle; ketauten jakiteko be ikasi egin biar da, ta urtian beingo ekiñagatik barriz zur-zilluetatik keya ataraten ezta ikasten.

Gauzarik garrantzirik gitxienekua dala be ondo ikasteko, irakurle, egunoro ogija irabasteko lan dagigun antzera, egunoroko ikastijai jardun biar yake.

Euzko-Abertzale ona ixaten ikasi gura daunak, egunoro Euzko-Iturritik edan biar dau. Aberri-izkerea ikasi gura daunak, egunero Euzko-Ikastoletaratu.

Eta Euzkadi atzerritarren menpetik azke kusi gura daben euzkotar gustijak JAUN-GOIKUA ETA LAGI-ZARRA ikurritzat daun ikurrinpian batuta Euzkadi-aldez lan egiten jardun.

Euzkadi gaizkatzeko ikurrin bat dogu, ba. naikua: JAUN-GOIKUA ETA LAGI-ZARRA'ren ikurriña.

Beraz zubek Euzkadi'ko karlatarrok eta Margarita-lorok be, Euzko-Ikurrinperantz eg.n, ba. Uskurtza ta geure eskubide gustijak aldeztuko dabezan ikurriña, JAUN-GOIKUA ETA LAGI-ZARRA dauzan ikurriña da-ta.

URIBITARTE'TAR IBON.

BOTAS de GOMA para el AGUA

Fabricación insuperable.

Precios especiales para Empresas y grandes consumidores.

HIGIENE
Gran Vía, 35

CAJAS DE CARTON

Imprenta. Almacén de papel.

ZURIMENDI. F. del Campo. 19. T. 13 033

Iru-Erregiak ekarriko ete dautsoe olakoxe astotxu bat ¿Bethlem'en bat en ostu dabe mutikotxu oneik, abere apal au, ta labankeri onen ba'litzan, ganera igon yakoz. Beste-orren-beste nork eztau egin?

Zama biguna ganian darualako, belarrijak jasoten dauz astuak arro-arro. Neskatiltxu ori etzako zama, ats egin baño. Aurrian dagon mutilla be igongo litzake, baña atzeko-ankak jasoko leukez eberetxubak..

Gabon-zorijontsubak opa dausku bez eta aurpegi-illunakaz ba'dagoz, izparringijan agertzeko bildurrak larritu dauz, ez pozik eztagozalako.

Euren bijotz barrutik diñotzube gasteño oneik: ¡Gabon zorijontsubak!

Euzko emakumeai

Durango'ko E. A. B. egiñ eban jai ederrean, "Altzeta" gure izlari bikañak, Ugarritza gixajua, Gipuzkoako mendigoxalien izenean besarkatu ebanean Tabira antzokian eguan notintza gustiak negarrari emon eutzon.

Ez uste izan baña emakumeak bakarrik negar egiñ genduanik. Bai gizon tantayak be, "Altzeta,,'k berak ere baita.

Nere onduan eguan bost sei urtedun neskatxo batek, bere amari galdetu eutson: "Ama, nork itxutu dan gixonezko eder ori?

Eta amak erantzun eutson: "Erdaldunak, maitetxo".

Eta umeak ostera: Ama, zelakuak dira ba erdaldunak?

Eta aruntzatxuago eguan beste andra batek au entzutean iñuan: "Erdaldunak? txa... aund jok, danak emendik atara arte ez dago gauza onik. Ebro'tik aruntz azkenengua bialdu barik ezin geinkez bizi be."

Beste gizon gaste batek: "Ebrotik aruntz ez orrek, Ebro'ra bertara baño, ta buruz bera gañera."

Ni, onek entzun nebazanean ixillik egon nintzan, beña, antxe bertan artu neban asmoa gaur diardutan idazti au egiteko. Emakumeari, batez be zuzentzen dautsiet.

Neuk be, orixe bei bera uste ot. Erdaldunak emendik atara barik ez dagoala gauza onik.

Baña Bakaldun katolikoak ixena ebien arek, Mahoma'tarrak eta Isrrael'tarrak España'tik ataratzeko egiñ ebien lako Lege baten zain ba'gagoz, luze juan bear yaku.

Ta ezin geinkez erdaldunakaz denbora luzean bizi. Ito egingo gaituez ta.

Au entzunda, abertzale sutsu batzuk (txapliguen eraz ixutu ta itzaltzen diranak) esaten dabe: "Lege ori ez dogula ixango uste dozu ala? Bai, ta ariñ dozu ala? Bai, ta ariñ ganera ixan be. Euzkadi bere buruaren jabe izaten danean. Nik, ganera, emen egiñ d tuezan diru guztiak kendu ta bialduko nitukez. ¡Kanpora danak!"

Baña onelako aokadak esaten diarduen bitartean, erdaldunak bai datoz... bai datoz..., eta lenguak berton geldi, lapak aitzari baño gogorrago geure erriari ebatuta.

Ija geu baño geyago dira, ta gu baño aurrerago dabiltz, lotsagabeak diralako.

¡Ia ikusi egixube Pasaiyan zer egiñ gura izan dabien geure arrantzale gixajuakaz!

Ezin geinke olan jarraitu. Geure lur maite au, geure erri au, geure odol au, geurere semeok, geure ogia ta geure umien ogia aldeztu bearrean gagoz,baña ¡gogor! Ez det esan nai izkilluak artuta euren moduan gixon erailten asi bear dogunik.

¡Ez olakorik, ondo irabasia dauken arren!

Ba be zarata barik, poliki, poliki atera geinkez geuk, emakumeok.

Itxi gizonentzat zaratak eta astrapaladak; guk geure erak doguz, ixillikakoak, iradu bakoak baña artezak eta ziurrak.

Begira, auxe da enengotik emakume gusti gustiok egiñ, bear doguna. Euzkeraz bakar bakarrik itz egin, erderarik erabilli ez, apurrik bez, iñun bez, ezetarako bez.

Emakume danok auxe egingo ba'geu, erdaldunari arnasa estutuko litzakioe, euzkera utzean ezin bizi dira ta.

Emakume euzkotarra: Ezkongaya al zera? Ez zaite erdaldunakaz ezkondu. Bai dakit maitetasuna itxuba dala, baña ez euskaldunak eta erdaldunak zeintzuk direan ez igertzeko beste.

Lendik daukaguz. gure artean. Gutiérrez ta Menéndez larregi, zeure odoletik etorriko diran semeakaz ugaldu barik.

Emakume abertzalea: Ezondua zara? ¡¡arren!! zeure seme alabari—zeuk ez ba'dak zu be—euzkerea irakatsi.

Aberatza zara? Ez egixu etxean morroi neskame erdaldunik euki; ez eta ere ezer eragiñez ezer erosi erdeldunen lantegi ta etxietan. Zure dirurik ez daitela erdaldunen sakelena juan.

Irakaslaria zara? Zeure biarreko orduak beteten dozuzanean, ordu laurentxu bat euzkel abesti ederrari, euzkel edestiari, euzko abendeari yagokozan gayari emon.

Gure aberria, geuk egiten dogunean izango da bere buruaren jabe.

ARRITOKIETA.

ERRIJETATIK

GAUTEGIZ-ARTEAGA

Igaro dan igandeko arratsaldien bost.': ingiruan, euki eben geure Emakume Abertzaliek Batzar bat, bertoko Batzokijen, E. A. B. irasi eta bere lenengo Buru-Batzarra ixentetako.

Ixentau eben Buru-Batzarra da:

Lendakari, Bengoetxea'tar Miren.

Lendakari ordes, Omarrementeria'tar Eukene.

Idazkari, Aberasturi'tar Kermane.

Lagun'tzat, Naberan'tar Miren Eli..., Omarrementeria'tar Perpeta eta Astorkia'tar Sope

Danori emoten deutsiet neure zorijon-agurrik gozuena. Eta lotsea gaitik edo etorri barik gelditu ziran emakume gustije diñotset, gauza onetarako, Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra'ren alde egiteko, eztala lotsarik euki-biar. Danok bat-eginda be lanik asko (ixango dogulako, or Gaztela aldetik jatorkun axe ustelarri esija ipinten. Guk, gixonok, zuekan deukogu geure itxaropen oso-osua. Uste dogu ba, eztagola emakumiak ezin legiken gauzarik. Danok batzen bazarie barriz, laster dozuez Gaztela'n barrura jaurti, Euzkadialdera be eldu yakuzan ba. surde eta beste baso-pizti gustijek. ¡Bai orixe!

ILLAK

Astelen goxian lagundu geuntsan ildegira. eta gero txadonako illotoitzetara Mendezona'tar Pillipa'ren gorpuari. Au dala-ta bere suiñ Iñaki, geure Batzokiko lendakarijari, geure tamal-agurrik saurrena.

Baita geure adiskide on Uribe'tar Simon'i be il yako bere illobatxu Egia'tar Elixe. Beronen guraso eta sendijari lagun gayagokoz euren atsekabian. (Goyan begoz).

¡EUP!

Zubi-barritik Tremova'raño eta Naberan'dik Alcamiz'eraño bixi zarien art atar gustijok, entzun: Egun gitxi barr. dei egingo jatzue eta eldu danok Zelaeta'ra. e'a an entzungo dozuez, iñoiz entzun dozuezanik, egirik aundijenak, egingo dabezanak, baña orretarako "Lauaxeta" lakorik alboe'riko semia la base..isan dagozan oitureak erautzen dabezalako iñor bez. Batzok rako erredijak Arrieta anayaren erredu olan egiten dagoz eta gauza polita ixango da batzokija jantzita egongo danian.

Uri buru ta Gastedi'ko lendakarijak gerturik dagoz euren sakeletik biar dana emoteko. Olan erakutziten da abertzaletasuna Jatabetarrok zeozertxu emon barik ez zeiteze lotu gero lotsagarrija ixango litekelako

Deun Estepan eguna al dan poztasunagaz ospatu baita gaon egunak be bordin. Orixe opa dizute.

JATABETARRA'K.

Bilbao alet'k etorriko jakuz gixon eta emakume izlari ospatsuak, gauza askoen artian Emakume Abertzale Batza zer dan eta zetarako dan danori irakasteko.

Etorri eta entzun. Entzun eta jakin.

Gabonak ondo egiñ, urte zarra ondo amaitu eta barrija obeto asi.

IZPARKARIJA.

JATABE'TIK

ZABALKUNDIA

Deun Estepan eguna egokijena dala ta egun orretan zabalduko dira batzoki'ko atiak Errit.k at dagozan erritarrak be emen ikusiko doguz euren guraso ta senide onduan gabon egunak igaroten.

Izparringi onetako euzkel atalan esan genduban lez Getxo'ko uri'ra be eldu-ziran jatabatar batzuk, eta an dagozan erritarren artian abegi onegaz artubak Jataberatu ziranian euren artian erabillen alkar izketan onelako batzuk esaten eben Jatabetarren artian satsa lez dago dirua. Izparringi onen bidez ezkerrikazko emolie'ri.

Ziur eztakigu ze jayak gertauko diran baña gitxi gora bera aunek ixango dira. Goixian jajujpa nagosi abestuba ta onen ostiaro eta Sabiñ'en gogo aldez Perosi'ren "Libera me" abestuko da. Albo errietako abertzaliak be biztu dira jai orreitara juateko ta gatikarrak euren abeslarijak bialduko dabezala esan dabe. Laukistarrak be an ixango dira baita urdulistarrak. Bitzubok ikusiko dabe ze gitxi biar dan batzoki bat imiñiteko. Ze arrayo da zuben errijetan batzoki barik egoteko? Zer egiten dabe orko abertzaliak? Urdulitz'en badakit zelan daukien gorrijak euren bazkuna eta zelako bearrak egiten dabezan ango baseritarren artian. Bide zabala itxiten bajakie negar asko aldi gitxi barru egin biarko dabe ango semiak.

Orain gure eskerrak zuzendu gura dautseguz. Jatabe'ko txaunburu ta txaunezkindari jaunei jai one'k gertauteko emon dauzkubezan erastasunagatik.

Eztakigu zeintzubak ixango diran itz

BERGARA

EMAKUME ABERTZALE-BATZA

Gogor ari dira lanean jozkin aldrako anderoñuak, sendi txiroetan zabalduko dituzten janzkiak gertatzen. Euren oparia da, sendi gustietara zerbait bigalitzia, baña ortarako laguntza bear dute ta abertzaliak lagundu bear dogu eureri zerait bidalduaz, bada euren langintzak ainbat garritutzea bearluke.

Orrez gañera zabaldu ditu dei batzuek, opariak eskatzen, bakaldun egunean Euzko Batzokian aurtxoentzat egingodan antzerki jayan zoritaldutzeko, gustiok zerbait opari bigaldu deigun geure aurtxoak poztuaz aurrerako bidea ikazi dezaten, opari eta janzki abek Batzoki eta Euzko Langillien bazkide tartian zabalduko dira.

ANTZESLARIAK

Gar aundiarekin ari dira gertatzen Josu'ren jayotza egunerako, "Olezkari-biak" eta "Rotxillen sakeltxoa" abek antzeztuko dituzte gaubeko 8,30'tan. Urte berri egunean antzeztuko dituzte "Markezaren alaba" eta "Amez gozoak", gaujai abetako zoritaldietan biltzendana, euzko janztegirako izan goda.

EUZKO LANGILLIAK

Gorakada ederra egindu, denbora gutxian bazkidien erezkadak, au ikusirik larunbat gaubian "Novedades,,'ko aretuan itzaldibat eman zuten itz eginik Ormaetxe'ak, Lasa'ak eta Izaurieta jaunak, denak guztiz ondo egin zuten eta notin aundia egonzan eureri entzuten. Langilleak, ikurri dezute euzkotarren bidea nundikan dagon, bazkidetu Euzko langille'tan ori degu biderik onenata.

ERIOTZA

Gexo luzeak eriotzara eramanik, Jaungoikuagan il da bere bizitzan abertzalia zan Oyarbide'tar Josu apaiz jauna. Atsekabe-samin ontan laguntzen diogu bere sendiari.

TXAIDEAN

Gaxoak aldebatera utzita txaidean agurtu degu Larrañaga'tar Andoni, lenbailen gustigogortzia opa diogu.

BATZARRA

Igande artzaldeko 2,30'tan izango da Euzko Batzokian, urteroko batzar nagusia, bertako eman eta batzordea berriztatzeko.

BIDEBURU.

MARKINA'TIK

¡EZ OLAKORIK!

Astarteko izparringijan Zoraluze'ko *Dris-Dras* idazliai ziraumtsonik ¡ez egin gero, "Lauaxeta"! ¿Euzkel-idazle batzuben esamez ta asarriatxtik zeure buruba errekara bota, ostera, Gabon aurrian, negubaren bijotzian? ¡Ez olakorik beintzat! Ori egixu gura ba'dozu, baña orain baño giro obia daguanian, dagonillian edo, aurtengua baño beruagua egiten ba'dau. Gañera Gabongo kapoi, bexigu erretxuba tziroi ta mamagozuak jan eta edan barik, eta zeure ixeneko Deuna'ren aurreko egunetan, ¡ez, arren, olakorik egin! Gomutaratu egixuz, ura ixotza baxen otza dagola, urtian diranik aparirik onenak egun onetan ipinten dirala ta... ¡Larunbatian zeure Deuna'ren eguna dala!

BATZOKIA

Aurrekada andija egin dabe egunakaz batzoki barriko lanak, eta oraintxe egunotan emongo dautse tellatuba, ta jarriko dabe biargiñok, oturea dan lez, abar bat bere tellatu egabian "montxorra" eskatzen. Entzun dot larunbat gabian apari bat daukela. ¡Kontuz gero ukandubagaz!

JUAN-ETORRI

Bere etxekuekaz Gabon-Jayak igarotera Tolosa'ra juan da, Gerrika auzoerako irakasle dan Mokoroa'tar Miren Laurdes anderañua.

Bardin Kanala'ra Aspiltza'ko irakasle dan Malax-etxebarria anderañua.

Bidebieta'ra (Dos Caminos) Lazkano'tar Laurentze.

Gabon-jayak igaroten euren etxietara etorrita emen dagoz D. Uralde'tar Pantzeska ta One, Gantxegi'tar Dugustiñe, Miren Koldobike, Teresa ta Toma, Azpiri'tar Miren, Garcia'tar Miren eta Goyogana'tar Ampara ikasliak.

Baita emen ikusi dogu. Madrid'ko Margolari ikastolari margolari ikasten dagon Olaortua'tar Pelagi gastia. Neure agurra gustijori.

ZORIJONAK

Zorijonak opa dautsubedaz "Euzkel-Atala,,'ko zuzendari, idazle ta irakurtiori. Gabon-jai zorijontsubak igaro egixubez gustijok, osasunez ta jentzaz, ezek gatxok egin barik. Urte zarrari agur alai bat egiñaz, egin arrera ona larrijari ba biar ba'da urte ori ixango da EUZKADI'ren zorijona lortako dana-ta.

ETE.

Uarra.—"Ete" adizkidia: Larri zagoz errekera buruba jaurti eztaidan, baña diñozun legetxe, ura-otz dagola sentidu dot. Bildurrak atzeratu nau. Udean "plust" jaurtiko dot. Ganera Gabonak pozez igaro gura dodaz, baita neure ixeneko Estepan deunaren eguna be. Zu lako bijotzoneko asko ba'lira geure artian, beste era batera bixiko geint kez, baña arantzatxu asko daukoez oraingo yentiak.

Igaro Gabonik zorijontsubenak, eta neure agurra erakutsi orko emakumiai ta abertzale zintzuai.—Lauaxeta.

AZPEITI'TIK

GABONA

Jaun-Goikuak lenengizona egitean. Loretegi eder baten jarri zuan. Zoritzu bizi izan bear zun an. Ontarako Jauna'ren agindu bat bete bear izan zun. Bete etzun ta mota guzitako zoritxarrak gañeratu zitun.

Jainkoak loretegi ederretik atera zidun-ta zoritxar aundinian utziz tun.

Miren Garbiaren errai garbietan gure antzeko gorputz ta arima arturik. Belengo estalpean lotazillaren 24'gko. gabeko 12'tan jayo izan zan bere.

¡O, Jaiotza maitagarria! Zeruak ta ludi guzian-pozez ganezten duan ordu zortzua.

¡O, Mendiko artzayen donede parerik gabea bada ordu ontan lenen dira zerutarren ikustaldian bai Mendi artzaiak dira lenen entzun zutenak alako. Zerutarren abesti eztitsu bera.

Aintza Jaunari Zeru Goian ta Pakea ludian gogo oneko gizonai.

PAKEA GIZONARI

¡Gauzarik ederrena! Pakea, etxe ta ata-

Gabon idazkiak

London'etik Arrasate'ra — *Arregi'tar Jon*

NERE AMATXO MAITIARI

Lenengo egunetan
zuk zenduen esaten:
—Lagun danari kartak
eta etxera ez digu idazten,
Baña nik ori amatxo
samur dizut barkatzen,
Dak dalako zenduela
maitatzen nozulako esaten.

Beiñ ere ezda semerik
bere amagaz aztutzen.
Ikusi badu nik bezela
beragatik beti lanian ukatzen;
Eta olerki kazkar abek
arretaz badituzu irakurten.
Laister igarriko diozu
iñoiz baiño geyago naizela oroitzen

Mitxeleta illunen-bat
iñoiz bazaizu inguratzen
Badakit laister arrituko zerana
okerrenbat ote jatan zortzen;
Ziur dakit gañera nigaitik etoi
egin barik etzerana ogeratzen.
Egun gustietan oroitzen zera
bai bazkal-orduan eta apaltzen.

Baña lasai egon ama
lagun oneik daukadan artian
Bada nere lanak amaitu
eta lo geara joatian
Lenen kusten ditudanak dira
Ama-Birgiñaren irudia batian
Eta Kisto deuna bestian
nere oge buru pare parian.

Paraje ederra da au ama
London bera oso ikusgarria
Baño neretzat amatxo
askoz ederragua Euzkal-Erria;
Eta nere lanak bukatzian
or naidet egiñ neretzat kabia
Bada ames gozuak egiten zuen
inguruan igarotzen gaurko denboria.

Gabonak emen dirala
esan didate iñun baño alaiago
Soñu ederrak janari onenak
eta broma abarra iñoiz baño geiago)
Baña etxian zuk ipiñitako
bakallua nik askoz naiago
Eta sendi gasia alkartuta zeiñ
ederra izaten dan oroitzen nago.

Seme bata London'en
eta bestia Americaa'n
Ezin gendezke aurten igaro
iñoiz lako Gabon gaberikan;
Nik emen alegin egingo det baño,
ezdet uste dagonik etxia bezin oberikan.

Aurtengua pasa dezagun
etxetik urrutikan
Eta danok alkartuko
gera datorren urtian;
Osasun ona emon daiguña
gure Jaunak bien bitartian

Besarkada eztitsuak
emaiozu sendi guziari
Ondo bukatu urte zarra
eta aziera ona eman bestiari!
Bada zuek ondo igarotzia
atsegin aundia zait neri
Laztan gozo bana umientzat
ta agur ama; agur, danori.

ETXE TA LURR SALDU-EROSTIA
Etxien-gain diru arrtu-emotia
INTXAURRAGA'tar P.
Bilbao-Ballen, 3-2'g. 11.655 Urrutizk

¡Eskerrik asko!

Egun batzuek atzerri-aldean igarote etxeratu naizenean sekulako idazki-txorta aurkitu det nere idazmayan, ainbat eta ainbat adizkide eta neretzat ez-esagunak diran beste ainbat abertzalerenak, guziyak zoriyonak ematen datorren urterako "ARGIAREN EGUTEGIA"-k argitaratu duen "EUZKADI'REN IZATE ETA ABERASTASUNA" deritzayon nere euzkerazko idazlan aberkoyarengatik.

Beragatik, eta guziyei idazkiz erantzutea eziñeko gauza zaiten ezkero, izparringi onen bidez nere eskerrik sutsu ta biyozkoyenak zuzentzen dizkatet nerekin oroitu diran aizkide ta aberkide guzi oyeri; batez ere Azpeiti'ko "Kirol", Ezkoriatza'ko "Atxolin", Iruña'ko "Larreko" eta EUZKADI'ko "Lauaxeta" azkarrari, beren idatziyetan zuzentzen dizkiaten nik beñere irabazi izango ez-ditudan goramenengatik.

"Gabon "atsegiñak eta urte-berri-on guziyori.

ZELETA.

Uarra.—Jaso nuan zere zorijon-agurra. Eskerrik asko. Gabon alayak igaro ta aurrera jarraitzeko adorea emen begitzu Goikua.—*Lauaxeta.*

rian, pakea toki guzian-aundita zun guzia dagolako bere babesean.

¡Ea ba! Euzkadi'ko errenaren ezagun guziai. Gabon gaban ta enarri jayetan. Pakea, danoi

Emakume idazleai Elgoibar'ko ai batez ere opa d.zuet gauze on asko-zubetatikan ba dakit batean bat biziro garaztuz dagoana. ta egun oietakon baten Txolitxok Elgoibar'era joan bearrik izateak gozagarri pizkabat ematea balitzeke.

"LAUAXETA,,'RI

Masu ona Gabon da Egurrn ondoren da Estepan deun eguna ere; guziak batean zartzea berdin izango da. Ea ba Jaunak gauze onazko dizkitzula ba. Jai ospatzu o etan Nere au baño lore zorteederragorik izango dezu baño zer egingo da ba-badakit. Azkoiti'ko neskatxak zer zioten egun alakoan. Aizan... ibilera polita ori bai baña begi aurreko petik begize zorrotza din.

ERRENA.

Uarra.—"Errena" adizkidia: Turroyik gatsik ezdizula egin Goikuak beteko al'zaitu on guziyakaz. Ondo ibilli ta goraintsi emeko batzuben partez. Agur.—L.

Restaurant : Fonda : LA ESTRELLA
DE RUFINO DE MENDIZABAL
María Muñoz, 6. — Teléfono, 12.673.
(Enfrente de la Audiencia).